

# MUSKER AMARRUAK

JON  
ARRETXE



erein



MUSKER  
AMARRUAK

32

---

uzta gorria

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2023ko azaroan*

Saila eta azalaren diseinua:

Cristina Fernández

Maketazioa:

Erein

© Jon Arretxe

© EREIN. Donostia 2023

ISBN: 978-84-9109-928-4

L.G.: D 1060-2023

EREIN Argitaletxea

Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

[erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

[itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

JON ARRETXE

# MUSKER AMARRUAK

Toure saga: 10

erein



*Onenari, Alexis Ravelo handiari*





## 1

## AYOZE



Kontzertu baten urruneko soinuak urratu du isiltasuna, reggaeton esaten dioten musika mota hori dirudi, eta txi-txarrak zalantzan legez geratu dira, aritu ez aritu. Ni ere horrelaxe sentitzen naiz. Don Quijote kalearen alde batean haur-ikastetxea dago, gaua izanda inolako mugimendurik ez daukana. Beste aldean, base militar eskerga mugatzen duen horma garaia. Ez da zaintza-posturik ageri, ez da inor sumatzen... Arriskurik ez dagoela iritzita, ortua babesten duen burdinazko hesia saltatu eta zuzen jo dut tomate-landareen gunera, fruituen gorritasun tentagarriak erakarrita. Handienari heldu eta ahora eraman dut zuzen. Ederra! Lauzpa-bost haginkadatan irentsi dut eta segituan poltsikoan nekarraren plastikozko poltsa betetzen hasi naiz. Orduan zarata bat entzun da, leka-landare garaien artetik datorrena. Urratsak dirudite, ostia, morroi bat atera da bat-batean hortik.

—Barkatu! —esan diot, larri—. Gose naiz eta bizpahiru tomate baino ez nizkizun kendu behar.

Tipoa ez da handiegia, baina zezen-lepoa eta gorputz sendoa dauzka. Buru soildu eta izerdituan alboko farolen argia islatzen zaio. Hanka bat atzeratu dut defentsa-jarrera hartzeko. Ez dirudi, ordea, morroia haserre dagoenik; areago, esango nuke neurearen antzeko izu aurpegia daukala.

—Zelako sustoa eman didazun, txatxo! —bota dit azkenik, xuxurlaka, buruko izerdia kokoterantz irristaraziz esku batez. Gero praka labur umeletan lehortzen saiatu da. Baobaben enborrak gogorarazi dizkidate haren izter gihartsuek—. Nigatik lasai egon zaitzke, ze ez naiz honen jabea. Hau hiri-ortua da, La Isletako auzokide guztiena.

—Ba sentitzen dut lapurretan ibiltzea, baina...

—Alferrik zabilta. —Baxuago mintzatzeko keinua egin dit—. Ni zure zeregin berean ari nintzen, ez naiz auzo hone-takoa.

Ezker eskuan daraman poltsa erakutsi dit, lekaz beterik. Gero bostekoa luzatu dit. A ze atzaparra!

—Ayoze daukat izena, baina jende gehienak «Musker» esaten dit, «Escaleritasko Muskerra» da nire ezizen osoa.

—Ni Mahamoud Toure naiz, eta Toure esaten didate denek.

—Senegaldarra?

—Burkina Fasokoa.

—Urte askotarako. —Ingurura begiratu du—. Behar-bada, hobe dugu alde egitea, norbait desegokia agertuan ere.

—Arrazoi duzu.

Ayozek benetako musker baten trebetasunaz gainditu du hesia, eta nik jarraitu egin diot, askoz baldarrago. Gero,

Don Quijote kaletik aurrera abiatu gara elkarrekin, lasaiago jada, nor bere lapurretaren emaitza eskuan. Morroi bitxia iruditu zait lehenengo momentutik. Itxura fisiko harrigarria gorabehera, zintzotasuna transmititzen du, begikotasuna.

—Harrera-zentroan ez dizuete jaten ematen, ala? —itaundu dit.

—Harrera-zentroan jana eta lo egiteko lekua ematen dituzte, bai, baina ni ez nago hor. Egun batzuetan lortu nuen sartzea, afrikar talde baten kamuflatuta, baina segurategi etorkin heldu berria ez nintzela ohartu bezain laster, bota egin ninduten.

—Ez zara, beraz, pateran ailegatu.

—Pateran ailegatu nintzen, baina aspaldi; duela hamar urtetik gora. Bilbon eman dut, gehienbat, tarte luze hau.

—Eta zer arraio ari zara egiten Las Palmasen?

Zalantza izan dut, zer kontatu. Egia aitortuko ote diot, patuaren txotxongiloa izan naizela Europara heldu nintzenetik, eta zorte txarrak edo ihes egin beharrak batera eta bestera eraman nautela hemen bukatu arte? Kontatuko diot nire Bilboko lagunak kartzelan edo atzerrian iheslari daudela eta nik ere ospa egin eta irla honetaraino ekarri ninduen itsasontzi baten ezkutatu nintzela?

—Halabeharra —hobetsi dut, azkenik, erantzun gisa, sorbalda-jasotze batez lagunduta.

—Tira, ez zaude lekurik txarreanean, behintzat. Kanariarrok ohituta gaude antzinatik afrikarrak jasotzen eta hemen ez zaudete penintsulan bezain txarto ikusita.

—Hori egia da.

—Zer moduz tratatu zaituzte Bilbo aldean?

—Denetarik egon da. Jendeaz, orokorrean, ezin naiz gehiegi kexatu, baina poliziarekin zorte txarra izan dut.

—Gauza asko dauzkagu amankomunean, txatxo.

La Isletaren beheko alderdia, batez ere Manuel Becerra plaza, jendetsu dago, kontzertuak eta ospakizunak antolatu baitituzte hilabete guztian zehar auzoko jaien aitzakiarekin. Goiko kale hauek, ostera, hutsik ageri dira, eta hemendik gora mendialde gorrixka eta lehorra da nagusi, toki debekatu herritar arruntontzat, eremu militarren barruan egonik. Aldapan behera pixkanaka jaitsiz, itsaslabar gaineko parke barkartira heldu eta gelditu egin gara. Lauzpabost palmera dauzka, sumendi-lur ilunetik hazitako zuhaixka batzuk, harritzko eserleku ilara luzea... «*Parque Pepe el limpiabotas*» jartzen du kartelean.

—Norantz zoaz orain? —itaundu dit Ayozek, eta berehala interpretatu du nire erantzunik eza—. Ez daukazu non lo egin, ezta?

—Leku finkorik ez, behintzat.

—Ni ere ez nago nire boladarik onenean. Escaleritasko apartamentua galdu nuenetik hor beheko bunker baten ematen ditut gauak. —La Isleta penintsulako itsasertz iluna seinalatu du begiradaz—. El Confital hondartza ezagutzen duzu, ezta?

—Bai, noski. Noizean behin hortxe hartzen dut bainua.

Bainutokia baino askoz gehiago da niretzat hondartza txiki hori. Izan ere, gauak pasatzeko nire leku ohikoetako bat bilakatu da, La Isleta auzoko plaza eta parke batzuekin

batera. Harrera-zentroko pagotxa amaitu zitzaidanean topatu nuen tokirik egokiena izan zen, Las Palmasko hondartza nagusia, Las Canteras, baino askoz diskretuagoa. Gorputzak esker onez hartzen du harearen biguntasuna, eta gainera, alde itzela dago Bilbotik hona euriteei eta tenperaturari dagokienez.

—El Confital pasatu eta gero —argitu dit Ayozek—, bunker batzuk daude, okupatuak. Horietariko baten aspalditik bizi den kolega bat nitaz errukitu eta aterpea eskaini zidan. Nahi izanez gero, galdetu ahal diot ea zure gorputz puska horrentzat ere lekutxo bat egin dezakegun.

—Ez kezkatu, ondo egoten naiz neure aisiara.

Jarlekuan ipini dut tomate-poltsa, eta Muskerrek ez du ezer erantsi. Goitik behera geratu zait begira, zerbait marmurtuz bezala.

—1'90 bai —bota du, ustekabean.

—Pixka bat gehiago, guztiz tente jartzea lortzen dudanean.

—Eta ehun kilotik gora.

—Nahiko gora. Zer ba?

—Sasoian zaude?

—Korrika egiteko, behintzat, ez.

Ayozek beste izerdi-errekaxo bat eragin du esku librea burutik pasatuta.

—Imajinatzen dut ez daukazula lanik.

—Lana, zer da hori?

—Non ibiliko zara bihar?

—Ez dakit, baino oso urrun ziur ezetz.

—Gestio batzuk egingo ditut goizean eta beharbada...  
Nahi duzu bihar leka hauek elkarrekin bazkaltzea? —Poltsa seinalatu dit.

—Ez daukat proposamen hoberik.

—Ordu bietan geratuko gara bunkerrean?

—Ados. Zelan topatuko dut?

—Ez dago galtzerik. Zuk El Confital hondartza zeharkatu, aurrera jarraitu itsasertzetik aldendu gabe eta berehala topatuko dituzu lehenengo bunkerrak. Gurea penintsula txiki baten dagoena da. Ez hurbildu sarrera apur bat lurpean daukan beste bunker batera. Ados?

—Ados.

Escaleritasko Muskerrak eskua praka izerdituetan erdizka lehortu eta eskaini egin dit. Oraindik heze dauka.

—Bihar arte, ba.

—Bihar arte.

Jarlekuan eseri eta Las Palmasko badiari erreparatu diot. Las Canteras hondartzako pasealeku argitsuari begira, palmeren adarrak laztantzen dituen haizearen ferekaz lagun-duta, hor beheko haitzen kontra apurtzen diren olatuen hotsa adituz, pentsatzen jarri naiz nire lagun berriaren burutik zer arraio pasatzen ari ote den. Baina segundo gutxi iraun dit hausnarketak, ilunpeetatik bat-batean ateratako pertsonaia bitxi batek erakarri baitu nire arreta. Batmanen antzera mo-zorrotuta dagoela esango nuke, eta rotaflex txiki bat darama eskuan. Hau martxan ipini eta, udal bulego baten aurrean, «*Reservado a oficina de la vivienda*» dioen trafiko-seinalea moztu du. Gero, kartel bat itsatsi du horman: «*Ayuntamiento*

*corrupto y vendido! Vecinos, os devuelvo este aparcamiento. Batman de La Isleta*», eta pintura beltzeko esprai batekin saguzarraren silueta margotu du alboan. Hautsitako seinalea hartu eta, itsaslabarretik behera bota ondoren, niri atzamar lodia gorantz jaso eta ospa egin du.

\* \* \*

Supermerkatu baten sarreran nago; atearen albo-alboan ez, hiruzpalau metroz aldendu naiz hortik, limosna edo opari zain dagoen beste afrikarrak lekua kendu nahi diodala sentitu ez dezan. Hemendik ondo ikusten ditut kutxak, hortxe dago nire jomuga. Ile beltz laburreko atso argalak ordaindu, gurdia aparkatu eta aterantz etorri da, poltsaz ondo kargaturik. Kalera irtendakoan, haren aurrean paratu naiz, irribarrea behartuz.

—Laguntzarik behar duzu, Rosa?

—Kaixo, Toure. Ba bai, gaur ondo etorriko zaizkit zure beso sendo horiek.

Gurdiak askatzeko euroa esker onez jaso ondoren, poltsa guztiak hartu dizkiot andreari eta haren etxerantz abiatu gara, honezkero soberan ezagutzen dudan bidetik. La Naval kalean sartu eta *Danbam* jatetxe korearraren aurretik igaro gara. Hortxe dago, bizkarra ate ondoko horman, txakurren pixa-arraden kontrako pegatinaz inguratuta, jabe zaharra bere ohiko mozolo begiradarekin. «Ez sartu hemen!» kartela baino ez zaio falta itxura arbuiautuko lokalari, eta jabearen presentziak berak ere urruntzeko gogoia ematen du. Badirudi

hor egoten dela beti morroia, zigarroak erre eta erre, aurretik igarotzen zaionari tinko so, begiak kliskatu ere egin gabe; eta txarrena, txiste txarrak egiten barregarriak direlakoan.

—Esklabo garesti, Rosa? —bota du, gaztelania trake-tsean, adina gorabehera ile beltz-beltza, oso ugaria, eta kopta-ile luzea mantentzen dituen jilipolla horrek.

—Toure ez da nire esklaboa, Jun, erosketekin laguntzen didan gizon jatorra baino —erantzun dio atsoak, eta nik eutsi behar izan diot zaplazteko bat ez jotzeko korear madarikatuari.

Kaka kolorekoa da jatetxearen aurrealdeko horma, atea bera bezalaxe, pertsiana erdi jaitsia eta leiho txikiak babesten dituzten burdin barrak bezalaxe, eta ezinezkoa da kristalen beste aldean zer dagoen bereiztea, hauek estalita baitaude jakiak iragartzen dituzten kartel ajatuekin eta plastikozko huntz-hostoekin. Hala eta guztiz ere, Danbamek bezero asko izaten ditu jatorduetan, giriak, normalean, gida-liburuetan eta Interneten gorai patzen baitute, antza, sukaldaritza benetan korearra eskaintzeagatik. Imajinatzen dut bezero horiekin atseginagoa izango dela Jun kabroia.

La Naval kaletik aurrera jarraituz, izen bereko eta kartel eskergako kafetegi klasikora hurbiltzen joan gara. Horren itxura ere ez da xarmagarriegia, baina langile jatorrak, txurro goxoak eta prezio merkeak izanik, beti beterik egoten da, bai barrualde estua bai kanpoko mahai-aulkiak, espaloi gehiena inbaditzen dutenak.



«Ea gaur zorterik dagoen!», pentsatu dut horra hurbildu ahala, baina... Ez ba, gaur ez da gelditu Rosa kafetegiturrotegian, agur beste batzuetako hamaiketakoari. Kamarero beteranoenak, nire atsoa baino are argalagoa den Jose beti alaiak, Rosari agur esan eta niri begia kliskatu dit.

Eraikitzen ari diren apartamentu turistiko ugarien artetik ibiliz, jaietako banderatxo-sortak ugaritzen doazela, La Naval kalearen amaierako plazaraino heldu gara, Manuel Becerraraino. Las Palmasko autobus-geltoki nagusietako bat dago hemen, eta bertoko jarlekuak izaten dira mila izarreko nire hoteletako bat, baina hilabete honetan ez, La Isletako jai luzeetako eszenatoki nagusia hementxe kokaturik baitago, eta nik gauak lo egiteko nahiago baititut.

Etorkinentzako harrera-zentrotik Las Canteras alderantz doazen afrikar taldetxoekin gurutzatuz, Rosa bizi den parajera, plazaren azken bazterreko etxe zaharren alderdira, iritsi gara, eta luzaroan nire bizilekua izandako Bilboko San Frantzisko etorri zait berriz gogora. Eraikin erdi hondatu edota hormaz itsutu batzuetan oraindik ikusten diren kartel eta apaingarriek argi adierazten dute hemen noizbait hango Palankaren estiloko kobazulo-gune bat egon zela, putiklubez ere ondo hornitua. Portu erraldoiaren hurbiltasuna lagungarria izango zen, noski. Hala ere, orain mundu horren azken arrastoak baino ez dira gelditzen hemen, badi-rudi eraikin zaharrak bota eta auzo berria eraiki nahi dutela.

San Frantziskoko Palanka ere bide berean zegoela irudituz zitzaidan handik alde egin nuenean. Agian bueltatzen naizenean mundu hori desagertuta egongo da betiko.

Baina... bueltatuko ote naiz? Osman, Xihab, Kristina... berriro ikusiko ote zaituztet? Elkarrekin egin genituen aldrebeskerien ondoren, oraindik frogatu gabeko hilketa batzuk barne, nekez. Kristinaren hutsunea sentitzen dut gehien. Gogorra da nire adiskidea kartzelan bakarrik imajinatzea, bisitatu ezinda, zigorra zenbat denboraz luzatuko den asmatu ezinda epaiketa egin arte... Haren isiltasunak eman zigun aukera bestei ihes egiteko, eta berak jan beharko du marroia denon partez. Orain ikusi beharko zer delitu frogatzen dioten. Droga-trafiko afera baino ez bada, agian ez da gehiegi luzatuko kartzelaldia. Hilketen kontua deskubritzen badute, ordea... Ez dut pentsatu ere egin nahi.

Erosketak igo dizkiot Rosari igogailurik gabeko hirugarren pisuraino eta berrogeita hamar zentimoko txanpona eta poltsako sagarrik politena oparitu dizkit.

—Eskerrik asko —esan diot.

—Eskerrik asko zuri, Toure, ez dakit zer egingo nukeen zu gabe.

—Edozertarako behar banauzu, badakizu.

Kalera itzuli eta supermerkatu bidea hartu dut berriz, bezero gehiago lortzeko esperantzaz. Izan ere, horiei erosketa-poltsekin laguntzea izaten da aspaldion nire diru iturri nagusia, noizbehinkako mandaturen bat edo lantxoren bat egitearekin batera, eguneko azken orduetan tabernetako terrazak biltzea, garbiketlan laguntzea eta horrelakoak, kasu. Rosari esker euro bat eta erdi eta fruta pieza bat irabazi ditut ordu erdi eskasean, eta zorte apur bat izan banu, debaldeko hamaiketako ere izango nuen. Tira, nire Bilboko

azken lanpostuan, seguratarena egiten nuenean putiklub baten sarreran, hiruzpalau euro ordaintzen zizkidaten orduko, eta jaso nezakeen opari gertagarriena labankada bat edo ostia batzuk izaten ziren. Beharbada ez nago hain-hain txarto Las Palmasen.

La Naval kafetegiaren aurretik igarotzean Jose kamare-roarekin egin dut topo berriro. Espaloian libratu den mahaia garbitzen ari da, flamenko estiloko zerbait kantatzen duen bitartean. Tipo bitxia da, beti dauka kantua ezpainetan, eta beti da flamenkoko zerbait edo opera pasarte ezagunen bat. Hurbiltzen ikusi nauenean platertxo baten soberan geratu diren txurro eta erdia eskaini dizkit. Esker onez hartu ditut.

\* \* \*

«Antzinako lehenengo kanariarrak La Isleta deritzon penintsula menditsu honetan bizi izan ziren. Kobazuloetan, atsedean hartzeko leku aproposaz gain, primerako talaia zeukaten, areriores bat noiz agertuko. Harrobi bat ere bazeukaten, eta hortik ateratako materialarekin eskuzko errotak egiten zituzten, zekaleak ehotzeko. Tailer litikoak ere bazeuden, harriak lantzeko...» eta abar eta abar, azaltzen ari zaie monitorea udalekuko umeei El Confital hondartzan, lurreko fosilak, edo lapak, edo batek daki zer erakusten dizkien bitartean.

Taldea eta hondartza atzean utzi ditut eta, ibiltari edo korrikalariren bat edo beste agurtuz lantzean behin, harritzar grisez osatutako eraikin txiki bat, ageriko leihorik ez

daukana, jo dut begiz. Militarren eremua mugatzen duen hesitik hur segitzen duen bidetik irten eta ur-ertzerantz hurbildu naiz, eraikinaren ateraino heldu arte. Aurrerago honen antzeko beste eraikin batzuk daudela ohartu naiz. Bizkaiko kostan ezagutzen ditudan bunkerrak bestelakoak dira, zementuz eginak, eta zulo handiak dauzkate bertatik tiro egiteko. Kanoiren bat ere badago oraindik. Hemen ez dut ez armarik ez zulo-leihorik ikusten, baina hauxe izan behar da Ayozek aipatu zidan bunker-gunea.

Lehenengo eraikinak egurrezko ate txikia dauka, giltzarrapoz itxita. Hondartzako aulkitxo bat dago sarreran, eta eguzkitakoa. Ez dirudi bertoko biztanlea inguruan dagoenik.

Bigarren eraikinerantz abiatu naiz uraren ertz-ertzetik, alde guztietatik azaltzen diren karramarroak ez zapaltzeko tentuz. Oraingoz ez ditut nire dietan sartu, baina aukera ona izan litezke. Izan ere, Nafar Pirinioetan bizi izan nintzenez nire elikagai nagusietako bat ziren hango erreka karramarroak, barraskilo eta perretxikoekin batera. Eskualde lehor honetan, ostera, perretxikoez ahaztu egin behar, eta hango moduko barraskilo potolorik ere ez da inondik ageri.

Aurrekoa baino handiagoa da bigarren bunkerra, eta sarrera, pixka bat lurpean sartuta dagoena, palet batez itxita dauka. Honen gainean «*Chano el peligroso*» irakur daiteke, eta beherago «*No pasar, peligro de muerte*». Bat-batean, paletaren atzetik musker bat atera da, kriston katxarroa, metro bateko luzera izango duena. Hots mehatxagarri bat ateraz, niganantz etorri da korrika, haginak erakutsiz, hankari lotuta daukan sokak tope egin dion arte. Joder, ze sustoa!

Tinko begira geratu zait piztia grisaxka, mihia aldika ateraz. El Confital hondartzako informazio-karteletan irakurri nuen La Isleta penintsulan munduko bigarren muskerrik handiena bizi dela. Orain arte ikusi gabe neukan halakorik, baina hauxe izan liteke horietako bat.

Ez naiz luzatu hor, badaezpada, eta penintsula txiki baten kokaturik dagoen hurrengo bunkerrerantz jo dut, metro gutxi batzuk lau hankatan igo ondoren. Horixe izan behar da Escaleritasko Muskerraren bizilekua. Eguzkitako bat barik bi ageri dira sarreran, eta beste horrenbeste hondartza-aulki. Horrez gain, eguzki-plaka txiki bat dago teilatuan, eta garagardo-botila hutsez betetako kutxa bat hormaren ondoan. «*Gaspar el gallego*» dago margotuta sarrera babesten duen gortinaren gainean.

—Ayoze! —esan dut, baina ez du inork erantzun.

Inguratu egin dut bunkerra. Atzealdean oilategi txiki bat dauka, pare bat oilorekin, eta hortik metro batzuetara, lurrean, hilobi txikia dirudiena, harritzoz inguratua, plastikozko lore sorta batez apaindua.

Sarrerara itzulita, hau babesten duen gortina zabaltzen ausartu naiz.

—Ayoze? Musker?

Inor ez. Lekak pil-pilean dauzkan kazola handi bat ikusi dut sutan. Eta segituan ahots batzuk entzun ditut hurbiltzen. Ayoze eta burua bisera urdin batez estaltzen duen gizon mehe gihartsu bat dira. Honek txankleta gorri deigarri batzuk janzten ditu, eta karramarroz betetako ontzi bat dakar.

—Toure, asko pozten naiz etortzeagatik! —eskutzarra luzatu dit Escaleritasko Muskerrak, eta gero laguna aurkeztu dit:

—Hara, gizon prestu hau Gaspar da, Gaspar galegoa. Beragatik izan ez balitz, oraindik kalean egongo nintzen, edozein bazterretan lo egiten eta chopped bokatez eta birra merkeaz elikatzen.

—Ongi etorri nire bizileku apalera —esan dit gizonak, bostekoa estutzeaz bat. Zimur piloa ageri zaizkio begi argien inguruko azal mila bider errean, ez da erraza hari adina kalkulatzea. Edonola ere, gazteen izaera kementsua sumatzen zaio oraindik.

Bunkerrean barruratu eta kazolara ahalik eta karramarro gehien bota ditu, urak gainez egin duen arte.

—Atera hiru garagardo, Musker —esan dio bizilagunari eta berak, labar txikiaren gainera itzulita, itsasoari bueltatu dizkio sobratutako karramarroak.

Gero Ayozeke Tropical bana ipini digu eskuan, aulkietan esertzen gonbidatu gaitu eta bunker barrura joan da zerbaiten bila.

—Sorpresa bat daukat zuretzat, Toure.

Hotz-hotza dago birra, badirudi hozkailu eta guzti daukala galegoak eguzki-plakari esker. Ze ondo sartzen den, ze gustura egoten den hemen...

Baina Musker nire aurrean paratu eta eskuetan dakarren kartela erakutsi didanean bizkarra bat-batean tentetu eta ia sudur-zuloetatik atera zait garagardoa.

—Zer deritzozu? —galdetu dit, irribarre bihurri batez.

—Zer arraio da hori? —atera zait.

«*La luchada del siglo*» diote kartelego letra handienek, eta horien azpiko esaldia sinetsi ezinik irakurri dut:

«*El Lagarto de Escaleritas vs El León de Dakar*».

Kartelego hutsuneak betez, ezkerrean, musker baten marrazkia, eta eskuinean lehoi buru batena, biak ume batek eginak diruditenak.

—Ez da behin betikoa, aldaketaren bat egin daiteke, baina esan, zer deritzozu?

—Niri oso erakargarria iruditzen zait —bota du galegoak—. Horrela utziz gero, ikusle piloak lortuko dugu.

Trago luze bat eman diot garagardoari, Ayoze makinatzen ari dena asimilatu nahian.

—Ez dakit nondik hasi —esan dut, etsita—. Guk biok, jende aurrean, elkarren kontra borroka egitea da zure plana?

—Horixe.

—Joder! Borrokalari profesionala zara?

—Ia-ia. Urte mordoa daramat borroka kanariarra egiten, txapeldun handia izan nintzen, baina orain... jada gaztea ez izateaz gainera, ez nago nire boladarik onenean.

—Ba nik ez dut borrokarik egin bizitza osoan. Bueno, ostia batzuk eman eta hartu bai, noski, nahi baino gehiagotan, baina ez kirol moduan.

—Ez kezkatu horregatik. Gorputz puska horrekin kriston planta izango zenuke terreroaren erdian.

—Zer da terreroa?

—Hareazko zirkulu handi bat, horren barruan egiten da borroka.

Ezezko keinuak egin ditut buruaz. Erokeria hutsa iruditzen zait Ayozeren burutazioa.

—Gainera, ez naiz Dakarkoa —erantsi dut—, Gorom-Gorom deritzon herri txiki batekoa baino.

—Zer ardura dio horrek? Hemengo jendea ez da enteratzen, halandaze zuk dakartarra zarela esan eta kito. Kontua da Senegalen gurearen antzeko borroka bat egiten dela. Ni hangoekin lehian ibilita nago, Kanarietan nahiz Dakarren, eta hemengo zaleei asko gustatzen zaizkie horrelako erakustaldi konbinatuak.

Antzerki zentzugabe hori imajinatu dut eta... ez, ezinezkoa da.

—Diru asko irabaz dezakegu.

Nire buruak ezezko keinuak egiteari utzi dio pixkanaka.

—Asko? —galdetu dut—. Zenbat?

—Asko-asko. Eta, lehenengo proba ondo ateraz gero, askoz gehiago etorriko litzateke.

Hitz magikoa aditzeak lasaitu eta pentsarazi egin dit. Nire bizimodua gobernatzen duten oinarritzko printzipio horietako bat etorri zait gogora: «dena sosaren alde», eta burmuina lanean hasi da. Hasieran zorakeria hutsa iruditutakoa beharbada ez da horrenbesterakoa? Azken urteotan diru pixka bat eskuratzearren izan ditudan sasi ofizioen zerrenda pasatu zait burutik: igarle iruzurgilea, gigoloa, buruhandia, zezen suzkoa, operako figurantea, artzaina, sikarioa, jipoi-emailea, bitxi-lapurra, putiklubeko segurata, immobiliaria bateko komisionista... Halako historialarekin, agian borrokalariarena egitea ez litzateke hain lekuz kanpo egongo.



—Egitekotan, noiz egingo genuke borroka hori? –itaundu dut.

—Asteburuan bertan.

Zalantzan geratu naiz.

—Gaur... osteguna da, ezta?

—Bai.

—Hiru egun barru?

—Bi egun barru, larunbatean.

Gaspar galegoari erreparatu diot. Bere begi argiek dir-dir egiten dute.

—Muskerrek borrokarako *maña* batzuk irakatsi ahal dizkizu di-da baten, hementxe bertan.

Agian...

—Dena dela –erantsi du bunkerraren okupak, zutik jarritz–, lehenengoa lehenengoa da. Erabaki inportanteak hobeto hartzen dira sabela beteta, ez duzu uste?

Kazolakoaren usaina heldu zait sudurrera. Edozer egiten da hobeto sabela beteta, egia da, eta zera otu zait, nazkatuta nagoela gosea pasatzen, urte mordoa daramadala Europan eta lehenengo egunean bezala nagoela. Etsigarria da egunero agobiatzea jatekoa zelan eskuratuko dudan pentsatuz. Borrokaren esperimendu zoro honek gosez bolada luze batez ahazteko bidean ipiniko ote ninduke?

Escaleritasko Muskerrak, irribarrez, eskua eskaini dit aulkitik altxatzen laguntzeko.

\* \* \*

Ikuskizun gautarra oso famatua omen den kantari baten imitatzaile-lehiaketarekin hasi da. Rafaela Carra edo halako zerbait deritzola uste dut. Parte-hartzaile guztien jarduna berdin antzekoa izan da: ileorde horia buruan eta antigoaleko janzkera estua soinean, dantzatu eta play-backa egin megafoniatik ateratzen den kantu martxosoarekin. «*Para hacer bien el amor hay que venir al sur...*, *Fiesta...*, *Qué dolor...*, *Caliente caliente...*». Hori dena koreografia osatzen duten lauzpabost dantzariz lagundurik, guztiak ere apaingarri eta arropa deigarri jantzirik, alaitasun giroan, La Isletako plaza handieneko jarlekuak betetzen dituzten ikusleen txalo eta biba artean.

Eta ikuskizunaren lehenengo zatia harrigarria iruditu bazait, jarraian etorri denarekin flipatu egin dut, eta inguruan dauzkadan harrera-zentroko etorkin gazteek areago, Afrikara oraindik ez baitira iritsi honen moduko *drag queen* erakustaldi-lehiaketak.

Zutik gaude aulkien gunetik apurtxo bat aldentuta, eta, gazteoi begira, inbidia sentitu dut. Espainiara ailegatzeko nozitu dituzten oinazeak gorabehera, orain zoriontsu itxura sumatzen zaie, barre egiten dute agertokiko pertsonaien portaeraren kontura eta batzuk dantzan ere ari dira. Pozik daude, bai, basamortuko ibilbide akigarrian ez direlako betiko galdu, euren patera ez delako hondoratu, helmugara bizirik ailegatu eta poliziek ez dituztelako atzerri-ratu, eta, batez ere, orain bizitza osoa daukatelako paradisuan euren ametsak errealitate bihurtzeko. Halaxe sentitu nintzen ni ere Europara ailegatu berritan, amets ez

eta ilusioz beterik, eta hara zelako ibilbidea izan dudan. Nik baino zorte hobea opa diet.

—Zelan moldatzen zara kalean? —galdetu dit haie-tako batek, bere taldearen barruan disimulatuta zenbait egunez harrera-zentroan sartzen lagundu zidan gazte ma-liarrak.

—Tira, txarragoa izan liteke. Jatetxe soziala dela, ber-toko jendearen eskuzabaltasuna dela, zer jan, behintzat, lor-tzen dut. Eta gauak pasatzeko... bueno, hemen ez du hotz handirik egiten. Eta zuek hor barruan, zer moduz?

—Nahiko ondo, jana eta lo egiteko tokia ez dira falta, badakizu. Eta, esan digutenez, aste batzuen ondoren pe-nintsulara bidaliko gaituzte, senideak edo lagunak dauzka-gun tokietara.

Musikaren bolumenaren bat-bateko igoerak gure el-karrizketa eragotzi du. Maliarrak zein beste lagunek ezin dute begirada agertokitik aldendu, eta nik ere ez. Ekialde Urruneko txabusina gorri distiratsua jantzirik zuen artistak bat-batean hau erantzi eta ia guztiz biluzik geratu da, gor-putza jiratu eta ikusleei keinu probokatzaileak egiten hasi da ipurdiari batera eta bestera eraginez, berriro jiratu eta za-kil-zorro ñimiñoaren azpian daukan tramankuluari dilin-dalan ekin dio. Baina harrigarriena gero etorri da, gorantz salto egin, hankak ireki eta spagat perfektua eginez lurreratu denean. Joder, zelako mina! Gero lurra ernaltzen bezala hasi da, beste hiru dantzariz lagunduta, alde z aurretik grabatu-tako ahotsak sexu-joerei buruzko askatasuna aldarrikatzen duen bitartean.

Erakustaldi guztiak izaten ari dira txundigarriak, eta eskema berdintsua jarraitzen dute. Animatzaile batek banan-banan aurkezten ditu parte-hartzaileak: Drag Hefesto, Drag Némesis, Drag Merkurio... eta txantxak egiten dizkie konplizitate giroan. Gero, artistak agertoki erdian paratzen dira euren takoi izugarri altuen gainean, milaka euro balio behar duten soineko, buruko koroa, luma eta bestelako apaingarriez horniturik, eta, musika lasaiaren laguntzaz, esaldi batzuk botatzen dituzte, ustez zirraragarriak. Gero musika bat-batean bizkortzen da eta berehalako baten biluztu egiten dira. Eta jarraian dantza eta saltoak datoz, eta gehienek lurrean amaitzen dute, ezinezkoak diruditen hanka-bihurrikatzeak eginez.

Drag Merkurio agurtzen den bitartean, gure taldearen ondotik gizon zuri potolo bat pasatu da, janari-postu baten erositako hot doga eskuan.

—Zuek ez zarete animatzen? —esan digu, irribarrez—. Oraindik ez daukagu *drag queen* afrikarrik eta kriston arrakasta izango zenukete.

Horixe baino ez nuen behar. Egia esan, nire ogibide-zerrenda kontuan hartuta, ez litzateke hain-hain harrigarria izango *drag queen*arena ere egitea, baina nire gorputz malgutasunarekin jai izango nuke, ze lehiakide guztiek gimnasta profesionalak ematen dute. Eta, gainera, plataforma horien gainean jarriz gero, muturrak hautsiko nituzke mugitzen hasi orduko.

Oraingoz, nahikoa daukat borrokalari gisa probatzearekin, ea zelan ateratzen den Muskerrek proposatu didan

esperimentua. Arratsaldean saiatu da niri borrokarako teknika batzuk irakasten, aurkaria harrapatu eta lurreratzeko trikimailuak, *mañak* euren hizkeran. Baldar samarra izan naiz, oraindik ez ditut ikasi, baina Gaspar galegoak dio etziko borrokaldian planta batzuk egiteko nahikoa izango dela. Bihar berriz entrenatzeko gelditu gara, eta gauean, epaile eta aurkezlearena egingo duen morroiaren jatetxean afalduko dugu elkarrekin, biharamuneko borrokaldirako estrategiak ondo zehazteko. Ea zer antzerki mota proposatzen didaten. Ez daukat batere argi kontu hau guztia, baina tira, beste behin ere, dena sosaren alde.

Hurrengo *drag queen*aren aurkezpena egiten ari da aurkezlea, oraindik ez dira gaueko hamarrak, baina lagun maliarrak sorbalda ukitu dit.

—Guk zentrora itzuli behar dugu, itxi aurretik. Zu pribilegiatua zara, libre zaude nahi duzuna egiteko. —Bergia kliskatu dit eskua luzatzeaz batera.

Gazteek alde egin dute, bada, eta ni zortzigarren *drag queen*aren jardunari begira geratu naiz. Lehiaketako azkena da, antza, eta Drag Eider gisa aurkeztu dute. Karibeko Piratak filmeko mozorro batez jantzirik hasi du ikuskizuna, Jack Sparrow edo delakoan, itsasontzi itxurako traste baten aurrean. Lehenik ohiko esaldi sorta lasaia bota du, pelikulo benetako esaldiak, antza, baina berehala musikaren erritmoa azkartu, arropak kendu eta ipurdia erakusteari ekin dio, ikusleen gozamenerako. Bitxia da, badirudi *drag queen* guztiak desiratzen ari direla momentu hori lehenbait lehen heltzea, ez dut ulertzen zertarako gastatzen duten

hainbeste diru soineko ikusgarri horiek eginez, segundo gutxiren buruan kendu behar badituzte.

Erakustaldia amaitu da, azkenik, eta aurkezle adar-jotzaileak adierazi duenez, orain epaileek irabazlea nor den erabaki beharko dute. Gugandik hurbil zegoen gizon poto-loari erreparatu diot, ez da arrastorik geratzen eskuartean zeukan hot dogetik, orain atzamarrak zurruputzen ari da. Listu-jarioa sentitu dut ahoan eta poltsikoan dauzkadan euro apurrak horrelako bat erosteko nahikoa izango ote liratekeen galdetu diot neure buruari. Agian hobe izango da bazkariko hondakinekin konformatzea, palmera baten ostean ezkutatuta utzi ditudan azken karramarro egosiekin. Etorriko da garai oparoagoa, borrokaldiena ondo ateratzen bazaigu.

Toki bakarti baten bila abiatu naiz, jatordua lasai egitearren, eta, librea izatearen abantaila baliatuz, gaurko zeru izartsua mirestekoko zer hotel aukeratuko dudan pentsatzen hasi naiz.